



**ASTE
KULTURALA
2024**

**APIRILAK
15-22**



DEUSTURO IKASTOLA
GURASO
ELKARTEA

ASTE KULTURALA 2024

DEUSTUKO IKASTOLA GURASO ELKARTEA

V EDIZIOA

MEMORIA

JUSTIFIKAZIOA

2017-2018 ikasturteaz geroztik, Deustuko ikastolako Guraso elkarteko ordezkarien batzordeak ikastolarekin koordinatutako Kultur Astea ekimena bultzatu izan du.

2018. urtean: Euskal astea izaten saiatu zen (euskal dantzak, euskal musika tresnak, herri kirolak, euskal literatura, bertsolaritza,...) eta kulturarekin dituen hainbat ekimen (bertako abeslariak, ipuin kontalariak, pailazoak, gazteen esperientziak...) antolatu ziren.

2019. urtean: Naturarekiko errespetua (birziklatze tailerra, itsasoen egoera...) Aniztasuna (sukaldaritza tailerrak...) eta hildo horretako hainbat gai jorratu genituen.

2020. urtean: Eskaintza zabala: kirola, euskal musika, euskal literatura... prestatu genituen, baina, zoritxarrez, dena bertan behera geratu zen aurreko astean.

2021. urtean: EUSKAL KULTUR ASTEA berreskuratu genuen, zergatik?

- Euskal kultura minoritario bilakatzen ari zelako gure komunitatean
- Egoera gatza
- Gure kultura bultzatu behar genuelako
- Euskararekin lotura estuago izateko (aurten denon apostua delako, EJGV, instituzio...)

Egoera dela eta, ezin izan zen ospatu.

2022. urtean: aste horretako programazioa liburuaren egunarekin bat etorri zen eta ikastetxeko klaustroak bultzatutako jarduerekin eta eskolaz kanpoko beste jarduera

batzuekin koordinatu zen, baita ikastetxean dauden beste batzordeekin (euskara, hezkidetzeta...)

2023. urtean: aurreko urteko balorazioa kontuan hartuta, bai klaustroaren aldetik, bai GERen aldetik, aste kulturala “Euskal astea” izaten jarraitzea erabakitzen da. Programazioa hainbat arlotan jorratu zen:

- Antzezpena/ Zinema (aktore, bikoizketa, zinemagile...)
- Musika/Dantzak/Bertsolaritza
- Literatura (idazle, ilustratzaile...)
- Arte plastiko (margogintza, zinemagile...)
- Kirolak (alternatiboak)
- Kazetaritza...

Urtero ekintza ezberdinak antolatu eta burutu izan ditugu, helburuak hauek izanik:

- Ikastetxeko komunitate osoak parte hartzea (ikasle, irakasle eta gurasoek)
- Euskal Kultura ikasle guztiei hurbiltzea, alderdi eta adierazpen guztietan.
- Gure errealitatetik eta hemendik kanpo, kultura euskaraz nola bizi eta landu daitekeen erakustea.
- Euskara ikusaraztea, ez bakarrik hizkuntza edo ikasgai gisa, baizik eta kultura transmititzen duen eta bizitzeko nahiz sortzeko aukera ematen duen hizkuntza gisa.
- Kulturen artean bizitzea: Euskal kulturarekin bizi diren beste kultura batzuk ikusaraztea eta elkarren artean hurbiltzea.
- Euskara, hizkuntza edo irakasgai gisa ez ezik, kultura transmititzen duen eta kultura bizitzeko zein sortzeko aukera ematen duen hizkuntza gisa ere ikusaraztea.

Gainera, zeharka helburu hauek landu dira:

- Genero berdintasuna
- Beste kulturekiko errespetua
- Ingurumenaren jasangarritasuna

Helburu horiek lortzen bagenituen, ikasleek kultura denaren ikuspegi zabalagoa izan zezaten laguntzen ari ginen, eta litekeena da haiek kultura horretan parte hartzeaz gain kultura horren parte direla konturatzen hastea. Era berean, euskara eta kultura (musika, kirola, arte plastikoak, literatura,...) nola bizi daitezkeen euskaraz ikusteko aukera ematen zitzaien, eta, aldi berean, elkarrekin lotuta joan daitezke, askotan nortasun propioa sortuz: euskal kultura.

PLANIFIKAZIOA

Aurreko ikasturteetan bezala, aurtengo maila bakoitzeko ordezkarien hasierako bileran (urrian), HH4 eta HH5 mailetako ordezkariekin elkartu ginen ekimen honen nondik norakoa azaltzeko. Ostean, batzorde bat osatu zen, maila horretako guraso eta GEaren ekimen honen koordinatzaileekin osatuta. Batzordea bi edo hiru astetik behin batzartu da ekimena osatu duten jarduerak antolatzeko helburuarekin.

Ikastolako ikasle guztiek "Aste Kulturean" parte har zezaten, egokitzat jo zen egingo ziren jarduera guztiak eskola-orduetan egitea. Horretarako, baimena eskatu zitzaion ikastetxeko zuzendaritza taldeari eta zikloko koordinatzaileei, eta haiek beti agertu zuten babesa "Aste Kulturala" aurrera joan zedin.

Batzordeak ideia egituratu zuen eta ikasleak hezkuntza-etapaka (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza) eta horien barruko zikloka banatu ziren, ziklo bakoitzaren adinarekin, beharrekin, interesekin eta ezaugarriekin bat datozen jarduerak/tailerak eskaini ahal izateko.

Horrela, egokitzat jo zen garatuko ziren jarduerak etaparen arabera bideratzeaz gain, zikloari emango zitzaioela lehentasuna, oro har, eta, Bigarren Hezkuntzan bezala, taldeari berari. Bigarren Hezkuntzaren kasuan, operatibotasuna gehiago hartu zen kontuan mailen araberrako banaketa egiteko; izan ere, ikasturte bakoitzeko ikasle-kopuruak ez zituen baterako jarduerak.

Guztira, hogei jarduera/tailer/irteera programatu genituen:

	IKASTURTEA 1			IKASTURTEA 2			IKASTURTEA 3			IKASTURTEA 4			IKASTURTEA 5		
	Denbora	Ordulega	Espazioa	Denbora	Ordulega	Espazioa	Denbora	Ordulega	Espazioa	Denbora	Ordulega	Espazioa	Denbora	Ordulega	Espazioa
HH2				Zinezi Laburmetria, saiakerak eta eskulana	09:30-10:30	HH2 gela baten							Iñuri Kortabai Añiztasuna	09:45-10:15	HH2 gela
HH3				Zinezi Laburmetria, saiakerak eta eskulana	10:30-11:30	HH3 gela baten							Iñuri Kortabai Añiztasuna	10:30-11:15	HH3 gela
HH4	Euskal Dantza	15:00-16:00	Pirkogela										Idoia: Nerea Ogieta "Emelak"	15:30-16:15	Pirkogela
HH5	Euskal Dantza	16:00-17:00	Pirkogela										Idoia: Nerea Ogieta "Emelak"	16:15-17:00	Pirkogela
LH1	Ondian erabotzen kompetentzia	15:15-16:45	Ondianaren lokalak	Idoia Camarero Buztatzale-paleta	09:30-11:00	116									
LH2	Heri kirolak	15:00-17:00	Patxo	Idoia Camarero Buztatzale-paleta	11:00-12:30	116									
LH3	Manu Ezeberria	11:00-12:00	116	Heri kirolak	15:00-17:00	Patxo				Azoka	09:30-11:00	DBH1			
LH4	Manu Ezeberria	12:00-13:00	116							Azoka Heri kirolak	09:30-11:00 15:00-17:00	DBH1 Patxo			
LH5				ARTEK (Jasangarritasuna modur)	09:45-11:15	Jantokian	Bertsolaritza Ander	09:30-10:30	116				Azoka	09:30-11:00	DBH1
LH6				ETB	10:00-11:00 11:00-12:00	ETBn (2 talde, 3 taldeko afitza 25 10:00-11:00)	1 heri nola (goiztiak taldeak)	09:30-10:30 10:30-11:30 12:00-13:00	1 heri nolan taldean				Azoka	09:30-11:00	DBH1
DBH1	Eskulaketa	12:00-14:00	Deustuko frontoiak (maila orokor)				Berrio saioa Maha Sareaketa	11:05-12:30 12:30-13:30	116						
DBH2										Aholkaritza: Kamela Ogieta: Aizoi Aizoi	11:30-12:25 12:30-13:25	Patxo			
DBH3										ker irribanda	11:30-12:25 12:30-13:25	116			
DBH4													Oñian Vega	11:30-13:00	116
IKAS KOMUNITATEA				Pedro Zubergaitza Deusturen antzerkaren 100. ofizierak	17:15-18:15	116									

Idoia Camarero

Behin ordutegia eginda eta ekintzak definituta, batzordearen koordinatzaileak zuzendaritzarekin harremanetan jarri ziren (zuzendaria, LH baita DBHko ikasketa buruekin) eta, behar izan den kasuetan, irakasle batzuekin, tailerra/jarduera zer izango zen eta dinamika horretan zer paper jokatu behar zuten zehatzago azaltzeko,

bai eta ikasleengandik zer espero zen. Horretarako irakasle batzuek aurretik hainbat jarduera prestatu zituzten ekintzari sarrera emateko.

AURRREKONTUA

Aurtengo Aste Kulturala aurrera eramateko, GE-k 3500 €-ko aurrekontua eskaini zion ekintza honen Batzordeari. Aurrekontu zabala dirudien arren, haibat jarduera eta tailerren kontratazioek aurrekontu altuak aurkeztu zituzten. Era berean, zenbait irakasle, guraso eta delegatuk, saio batzuetan parte hartzeko eskaini zuten bere burua. Era honetan, Aste Kulturala anitza eta askotarikoa izatea lortu zen, hasierako aurrekontua gainditu gabe.

Gastuak horrela banatu ziren::

Ekintza	€
IPUIN KONTALARIA- Maitane	50
MANU ETXEBARRIA	50
EITB	0
HERRI KIROLAK	100
BERTSOLARITZA	50
EUSKAL DANTZAK	100
ESKU PILOTA	423,5
ONDALAN	50
I FELL NUT	50
ARTEKA	350
AITZOL ATUTXA	50
KARMELE GISASOLA	150
IKER IRRIBARRIA	100
OIHAN VEGA	280,5
HEDATZE	0
IDOIA CARRAMIÑANA	210
NAROA OGANDO	100
MAITE SARASOLA	50
ITSASO ZINETXIKI	50
PEDRO ZUBEROGOITIA	50
KARTELA DBH	57,58
Kartela inprimatu	20
GUZTIRA	2341,58

GARAPENA ETA BALORAZIOA

Deustuko Ikastolako V. Aste Kulturean egin diren ekintzek, musika, arte eszeniko, arte grafiko,, literatura, kirola, hedabideen zientzia eta balioetan oinarritutako hezkuntzaren alderdiak bete dituzte. Aste hori Aste Kultureko batzordeak antolatu du, eta GE-ak babestu du.

Gehiegi luzatu nahi izan gabe, interesgarritzat jo dugu jarduera horietako bakoitzaren deskribapen laburra egitea, zertan datzan azalduz.

HH 2

- ZINETXIKI. Beren adinari egokitutako film labur bat proiektatu zaie, eta gero eskulan tailer txiki bat.
- IPUIN KONTALARIA. Ama batek kontatu du aniztasunari buruzko ipuina.

HH 3

- ZINETXIKI. Beren adinari egokitutako film labur bat proiektatu zaie, eta gero eskulan tailer txiki bat.
- IPUIN KONTALARIA. Ama batek kontatu du aniztasunari buruzko ipuina.

HH 4

- EUSKAL DANTZAK. Eskolaz kanpoko monitoreak tailerra egin du. Azalpena, erakusketa eta denok dantza egitea.
- ERRALDOIAK IPUINA. Naroa Ogando ipuin kontalaria.

HH 5

- EUSKAL DANTZAK. Eskolaz kanpoko monitoreak tailerra egin du. Azalpena, erakusketa eta denok dantza egitea.
- ERRALDOIAK IPUINA. Naroa Ogando ipuin kontalaria.

LEHEN HEZKUNTZA

LH1

- ONDALAN. Auzoko erraldoi konpartsak tailerra eman du. Bere lokalean hartu ditu, eta erraldoi txikienak erakutsi eta haiek mugitzen irakatsi diete.
- IDOIA CARRAMIÑANA. Ilustratzaileak hitzaldi bat eman die bere lanari buruz.

LH2

- IDOIA CARRAMIÑANA. Ilustratzaileak hitzaldi bat eman die bere lanari buruz.
- HERRI KIROLAK. Hainbat material eraman dira "Herri kirolak" federazioaren eskutik.

LH3

- MANU ETXEBARRIA. Mitologiari buruzko hitzaldia egin du.
- HERRI KIROLAK. Hainbat material eraman dira "Herri kirolak" federazioaren eskutik.
- DBH azoka.

LH4

- MANU ETXEBARRIA. Mitologiari buruzko hitzaldia egin du.
- HERRI KIROLAK. Hainbat material eraman dira "Herri kirolak" federazioaren eskutik.
- DBH azoka.

LH5

- ARTEK. Ehungintzako ekonomia iraunkorrari buruzko hitzaldia eman du. Jasangarritasuna modan. Etxetik ekarritako kamiseta apaindu dute.
- BERTSOLARITZA. Eskolaz kanpoko ekintzaren irakasleak (Ander) tailer bat eman du bertsolaritzaren inguruan. Azalpena eta jarduerak parte hartzeko.
- DBH azoka.

LH6

- EITB. EITBko instalazioetan bisita egin.
- I FEEL NUT. Arropa diseinatzen eta saltzen duen tailer bat bisitatzea. Azalpen-hitzaldi bat jaso eta txaleko bat egiteko tailer txiki bat egingo dute.
- DBH azoka.

DBH

DBH 1

- ESKUPILOTA. Eskupilota federazioa Jai Alaiak pilota kirolak azaldu ditu. Materiala erakusketa. Ikasleek parte hartzeko aukera izango dute.
- MAITE SARASOLA. Maite Sarasola bertsolariak emango die hitzaldi bat eta gero erakustaldia egingo die.

DBH 2

- AIZKOLARIAK: AITZOL ATUTXA ETA KARMELE GISASOLA. Erakustaldia patioan.

DBH 3

- IKER IRIBARRIA. Pilotariak hitzaldia eman du bere ibilbide profesionalaren inguruan, bereziki nola utzi behar izan zuen lesioa dela eta, eta nola egin zion aurre.

DBH 4

- OIHAN VEGA. Tailerra.

IKAS KOMUNITATEA

- PEDRO ZUBEROGOITIA. Historia irakaslea. Deusturen anexioaren 100. urteurrena. Hitzaldia eta solasaldia.

Ekintza guztien balorazioa positiboa izan da orokorrean, gutxieneko balorazioa jaso ez duten ekintzak ez dira errepikatuko edo beste planteamendu bat burutuko da.

IRADOKIZUNAK

Atal honetan irakasleek, inkestatutako ikasleek eta "Kultur Astea" koordinatzen dugunok egin ditugun iradokizun eta ekarpen guztiak jasotzen dira, hurrengo edizioa aurrekoak baino hobea izan dadin.

- Euskal Astea ikastetxeko urteko planean txertatu.
- Irakasleen eta "Kultur Astea"ko batzordearen elkarlana, denon laguntza/inplikazioa sustatuz, jarduerak/tailerrak hobeto egokitzeko eta ikastetxeko programazioekin bat egiteko.
- Aste kulturala ikustaraztea, zabaltzeko bide egokiak aukeratu, ziurtatu programazioa garaiz guztiongana heltzen dela.
- Datak kurtso hasieran zehaztea. (martxoan, azterketa garaian ez)
- Kontuan hartuta Euskal Asteak eskatzen duen lana, GEko ardura hau bi mailatan ezartzea.